

Argazkilaritza

Stefan Koppelkamm

Hiriaren metamorfosia zuri-beltzean esplikatua

Ortszeit (Ordu lokala) erakusketa paratuko dute azaroaren 9tik abenduaren 4ra Donostiako Ernest Lluch kultur etxean. Stefan Koppelkamm argazkilariaren lanak dira: Berlingo Harresia erori berritan Ekialdeko Alemaniako kaleak eta eraikinak erretratatzeari ekin zion; gero, XXI. mendea hastearekin batera, leku berberetara itzuli, berriz klik egin, imajina berriak bildu eta zaharrekin konparatu zituen. Diferentziak, denbora tarte laburrean, harrigarriak dira.

GORKA BEREZIARTUA

ZERBAIT –ala norbait– desagertzen denean, argazki bat izan daiteke memoria-ren helduleku bakarra. Denok daukagu gordea etxeko tiradera batean irudi bat, inoiz gehiago ikusiko ez dugunaren oroimenez. Baina desagertu ordez, zerbait –norbait– metamorfosira bortxatua denean, komeni da bakarraren ordez erretratu gehiago eskura izatea. Aldea ikusteko, konparatzeko. Argazkiak, momentu hilak izatetik, mugitzeko gai diren objektu izatera pasatzen dira, itxuraldaketaren urrats bihurtzen direlako.

Ondo daki hori Stefan Koppelkammek, 1990ean autoa hartu eta Ekialdeko Alemania korritzeko erabakia hartu duenean. Kamera eskuan darama, begi parean jartzen zaionari tiro egiteko prest. Azkar ehizatu behar dira irudiak, begi-bistan dauden bitartean, harrapari handiak etorriko baitira atzetik. “Aurreneko bidaiei ekin nienean, gauza bat garbi zegoen niretzat: honek ez du itxura hau edukiko denbora luzez” adierazi zuen elkarrizketa batean.

Berlingo murrua erori berri da, eta argazkilaria berehala jabetu da Ekialdeko azken bazterretaraino iritsiko dela urre gorriaren sukarra. Are argiago ikusiko du hori, bidaia-tzen ari den bitartean: hoteletan aurkitzen ditu liberalismo ekonomikoaren soldadutu-oxak, negozioa nola egin, beste kezkarik buruan ez dutela. Baina berak bestelako asmoak ditu. Paisaia, kaleak, eraikinak, ezagutzen ez zuen herrialdea ari zaio zabaltzen begien aurrean, eta fazinatuta dago. Ez monumentuekin; ez erakundeen edifizio handiekin; ez Alemaniako Errepublika



Demokratikoa izan denaren arrastoekin. Kantoi, etxe-aurpegi eta patio arruntak harrapatuko ditu objektiboaz 1992ra bitartean. Jakin-min hutsak gidatzen dio begirada, klik hemen, klik han.

Koppelkamm egona da harresia erori aurretik Ekialdeko Alemanian, baina zulo beltzez betetako mapa gordetzen du buruan. Herri askoren izenak legenda hutsa dira berarentzat: Dresden, Leipzig, Görlitz, Zittau... Eta presa dauka haietara iristeko, ezagutzeko. Orain, autotik jaitsi eta kalez kale dabilela, harritzen al da ikusten duenarekin? Bai, asko: "Görlitz bezalako hiri batera iritsi nintzenez, txundituta geratu nintzen. Ez nuen horrelako ezer ikusi lehenago Alemanian: hiria egoera txarrean zegoen nabarmen, baina osorik biziraun zuen II. Mundu Gerraren ondoren". Elkarrizketa berean aitortuko du Mendebaldeko alemaniar askok, nostalgiaz, Italian bilatzen zituztela gerra aurreko edifizioak, 1945etik aurrerako berreraikuntzan beraienak goitik behera desegin baitzituzten. Orain Ekialdera ere tamaina bereko ekaitza etorriko da, ordea.

Hamar urte eta gero hau

2002an Koppelkamm berriz joango da aurreko hamarkadaren hasieran bisitatu zituen hirietara. Eta leku beretik aterako ditu argazkiak. Ez dira argazki berak izango, ezta hurrik eman ere. Hoberako aldatu dira, ala okerre-rako? Lehen begi kolpean gauza batzuk gutxienez antzematen dira: eraikinek itxura txukunagoa dute erretratu berri gehienetan

Ordu lokala proiektuko argazkiak, printzipioz behintzat, ez dira hiri eredu, edo are, proiektu politiko jakin baten alde lerratzen: asmo dokumentala daukate

–nahiz eta batzuk ez diren sobera aldatzen, orri honetan ikusten den Görlitzeko Weberstrasse, kasu–; askoz automobil gehiago ageri da, eta ez dira dagoeneko Trabant markako modeloak; eta dendak agertu dira, nonahi. Baina Koppelkammek ez du, zentzu horretan, posizio argirik erakusten: Ekialdeko hirietan bigarren txanda egin zuenean ikusi zuen, askotan eraikinen historia ezabatu egin zutela berrikuntzek. "Baziren adibide distiratsuak, baina ez du ematen lortzen dugunik Italian aurkitzen ahal duzun ukitu segurua, han eraikinak zaharbertzen baitituzte, baina ez zara jabetzen".

Ordu lokala proiektuko argazkiak, printzipioz behintzat, ez dira hiri eredu, edo are, proiektu politiko jakin baten alde lerratzen: asmo dokumentaleko imajinak dira, aldaketaren testigantza biltzea izan da egilearen helburu nagusia, eta iragana/oraina jokoan sartuta bakarrik dute zentzua erretratuek.

Objektiboa urrunduta ordea, harrigarria gertatzen da zenbait lekuk hain tarte laburrean jasan duten aldaketa bortitza ikustea. Garai historikoek pertsonen ingurunean duten eraginaren erakusgarri izan daiteke;



Jolastoki

Makalen etorbidea 24, Neguri (48992)
Tel.: 944 912 031 • Getxo, BIZKAIA
www.restaurantejolastoki.com





baita, oinak lurrean jarriz gero, azken hamarkadako abiadura handiko hirigintza politikaren ondarea ere. Horregatik, gaurko krisi ekonomikoaren eragina zenbaterainokoa izango den dokumentatzeko baino ez bada ere, ikustekoak lirateke hamar urte barru Alemaniako txoko berak, ekaitzaren osteko barealdian.

Alemania, iraganari begira

Eta objektiboa urruntzen hasita, komeni da Koppelkammen lana testuinguru zabalagoan kokatzea ere. Berlingo argazkilariaren lana ez baita irla azken aldiari Alemaniari iritsi diren kultur ekoizpenen artean. Hango zinema askotan ari da lantzen XX. mendean herrialdeak izandako historia problematikoa –nazismoa, RAF talde armatuaren ibilbidea, AEDn herritarrek jasan zuten espioitza...–, gehienetan estetika errealistarekin eta dokumentaletik gertu. Literaturan Günter Grass-ek autobiografia batekin –*Tipula zuritzen*–

Ezkerrean Zittauko eraikin baten bi argazki: 1990ekoak da goikoa, 2001ekoak behekoa. Eskuinean aldiz, Berlingo Hackesche Höfe auzoko kale bat: goiko irudia 1992an hartua da, behekoa 2004an.

lortu du aspaldiko titular kopuru handiena. Arrazoia, Waffen-SSko kide izan zela aitortu zuela.

Badirudi bat-egitearen osteko *shock* urteen ondotik, artista alemaniarrak beraien historiaren narratiba bakarra, bateratua, konpaktua osatzeko ahaleginetan ari direla. Ikuspegi horretatik, zentzu handiagoa hartzen du diziplina bakoitzean erabilitako baliabideen aseptikotasunak: kontatzeko dagoenari oraindik atzamar puntekin heldu behar zaio; eta beharrezkoagoa –errazagoa?– da adierazkortasuna alde batera utzita lan egitea.

Edozein modutan, bakoitzak bere lan erritmoak ditu. Stefan Koppelkammek *Ordu Lokalako* argazkiekin xahututzat eman zituen bere kezka historikoak. Haren lan berrietan gaur egungo hiria da nagusi eta, azaroaren 9tik Donostian ikusgai izango den erakusketan ez bezala, koloreak toki handiagoa hartu du. ■